

PRENTSA-OHARRA: 2021.06.17

Kimuak katalogoa Eskoziara joango da Malagako zinema jaialdia konkistatu eta gero

- Euskal film laburren aukeraketa ostiralean proiektatuko dute Edinburgon
- Programazioa online ere ikusi ahal izango da, ekainaren 18tik 25era, Erresuma Batuko edozein hiritan

Zorioneko dago **Kimuak** euskal film laburren sustapenerako ekimena; izan ere, joan den asteburuan Malagako zinema jaialdian bi sari irabazi ostean, **Eskoziara bidaiatuko dute ostiral honetan, ekainaren 18an, Kimuak 2020** katalogoko lanek. [Eskoziako Institutu Frantsesean](#), Edinburgon, proiektatuko dituzte. Gainera, lehenengoz, Kimuaken aukeraketa online ikusi ahal izango da, ekainaren 18tik 25era, Erresuma Batuko edozein hiritan. Horrela, **Belfast, Leeds, Birmingham, Cardiff, Londres, Manchester, Dundee** eta Erresuma Batuko beste hamaika lekutan euskal kultura gustuko dutenek gure zinema online ikusteko aukera izango dute [FesthomeTV](#) plataformaren bitartez.

Horrela, Eskoziak eta Euskal Herriak -bi nazio senidetu eta sarritan konparatuek-harremanak estutuko dituzte proiektzio horien bitartez. Kimuak Etxepare Euskal Institutuaren programa da, Euskadiko Filmategiak kudeatzen duena Zineuskadiren laguntzaz. Hala, ostiralean, 18:45ean hasiko den proiektzioan, honako laburrak izango dira ikusgai: **Barbudos (Larry Mankuso, Tucker Dávila Wood)**, **Dar-dar (Paul Urkijo)**, **Ehiza (Hauazkena Taldea)**, **Interior Taxi Noche (Silvia Rey, Iban**

del Campo), `Quebrantos` (**Koldo Almandoz, Maria Elorza**), `El ruido solar` (**Pablo Hernando**) eta `Ya no duermo` (**Marina Palacio**). Azken bi hauek izan dira sarituak Malagako Zinemaldian.

[CinemaAttic](#)-ek antolatu ditu Kimuak programaren jarduerak Eskozian barrena. Erakunde horrek 10 urtetik gora daramatza Eskozian zinema iberoamerikarra sustatzen, eta Etxepare Euskal Institutuarekin elkarlanean aritzen da nazioarteko programazioetan euskal sorkuntzari leihoak irekitzeko estrategian lanean. Alde horretatik, CinemaAttic-etik azpimarratu dutenez, duela hamar urte hasi zen Kimuak programarekin duten “maitasun-harremana”. Azaldu dute geroztik “errespetua eta mirespena” areagotu baino ez direla egin.

“Urtero, Kimuak programak harritu egiten gaitu **hizkuntza eta joera berrietara egokitzeko duen gaitasunagatik, zinema zoragarria sustatzeko** eta euskal zinemagileen belaunaldi berriak babesteko lan egiten duena. Kimuak altxorra da, **kasu aitzindaria** Espainian, eta Erresuma Batuko programa beste urte askoan sustatzen jarraitzea espero dugu”.

Balio erantsia

Bestalde, Txema Muñoz Kimuakeko arduradunak nabarmendu duenez, Kimuakentzat “oso garrantzitsua da zinema jaialdietan parte hartzea, baina baita CinemaAttic-eko kideen aurkezpenetan parte izatea ere, haiekin harreman bikaina baitugu aspalditik”.

“Eskoziar eta britainiar publikoak, oro har, gure film labur berriak ikusteko aukera izatea eta katalogoa bere osotasunean aurkeztea oso positiboki baloratzen dugun balio erantsia da”, azpimarratu du Muñozek; haren ustez, “**Edinburgo, Glasgow edo Londresen lanak jendartera hurbiltzen dituzten euskal zinemagileak etengabe egotea** beste arrazoi bat da, animatzen gaituena CinemaAttic-ekin lankidetzan jarraitzera, ekimen emankorra baita”.

Azken urteotan, **Etxepare Institutuaren**, **Kimuak programaren** eta **CinemaAttic**-en arteko lankidetzak estuak dira, zenbait euskal artista eta zinemagileren atzerabegirakoak egin dira, hala nola, **Asier Altuna**, **Bego Vicario**, **Isabel Herguera**, **Maidier Fernandez Iriarte**, **Maddi Barber** edo **Izibene Oñederrari** eskainitakoak, bere lanak Edinburgo, Glasgow edo Manchester hirietan aurkeztuta.

Kimuak programak, duela gutxi [2021eko film laburren aukeraketa](#) iragarri duenak, berri gozoak ematen jarraitzen du; izan ere, joan den asteburuan, Erresuma Batuan ikusgai izango den katalogoko bi lanek jaso zituzten Malagako Zinemaldiko sari nagusiak. **Marina Palacioren** `Ya No Duermo´-k film labur Onenaren Zilarrezko Biznaga irabazi du; Pablo Hernandok, aldiz, Zuzendaritza onenaren Zilarrezko Biznaga jaso du `El ruido solar´ lanagatik. Hartara, sari bikoitza euskal talentu berriari, eta aitortze handia Kimuak programari, bi hamarkada baino gehiago daramatzalako Euskal Herriko ikus-entzunezkoak nazioartean sustatzen.

Info+

Beñat Doxandabaratx
Etxepare Euskal Institutua
Tabakalera / Andre zigarrongileen plaza, 1
Donostia / San Sebastián
T: 943 023 400 / M: 688 670 217
komunikazioa@etxepare.eus
www.etxepare.eus